

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTZIEGOKO UDALA

**Lantziegoko udalbatzaren erabakiaren laburpena, zeinaren bidez Lantziegoko Udalaren 2020-2021 ikasturterako udal laguntzen deialdia egiten baita, euskara zentro ofizial edo homologatuetan, autoikaskuntza zentroak barne, matrikula egiteko gastuak diruz laguntzeko**

DDBN: 578608

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/578608>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Lantziegoko udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak.

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdi honen xedea honako hau izango da: euskara ikasteak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzea, euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Lantziegoko Udalbatzak onetsiak, 2014ko urriaren 1ean.

Udalaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean egongo dira eskuragarri.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdia 900 eurorekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

15 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Lantziego, 2021eko abuztuaren 19a

*Alkatea*

*ITZIAR DE ÁLAVA MARTINEZ DE ICAYA*